



### ▶ PSICOLOGÍA ETA FIHEZI ARTEKO IKASLEON ASANBLADAREN IZENEAN. "Gunea" ERDITU DUGU

Psikologia eta FIHEZI fakultadetako ikasleok, aspalditik unibertsitate eredu honetan arnasmune baten beharra somatzen genuen EHUren eskuhartzetik kanpo legokeena, guk geuk kudetutakoa. Sortuko genituzkeen proiektuak, eztabaidak, solasaldiak, eta bestelako ekintza anitzak pentsatu eta burutzeko, alegia.

Horrela ba, hilabeteak dira asanblada bat sortu genuela eta proiektu independente honi forma emanez, lanean aritu garela, erabilerarik ez zuen espazio bat gure egiteko. Dekanotzari proiektu hau aurkeztu ondoren, aste honetan bertan, gure bidea egiteko lehen pausuak eman ditugu, FIHEZIn kokatutako espazio huts horren atea zabalduz!

Datorren asteartean inaguratuko dugu Gunea eta prestaketak iada martxan dira.

Beraz, ez dudarik izan eta Psikologia eta FIHEZiko ikasleon asanblada irekira etortzera animatu. **(astelehenero 14:00tan GUnean!)**

Hau hasi baino ez da egin!

Zorionak Gune!

### ▶ ALUMNADO DE LA FACULTAD Y BOLETÍN DE LA FACULTAD

El alumnado de la facultad puede hacer uso de este boletín para informar acerca de jornadas y actividades que organice.

Si estás interesado en que los miembros de la facultad tengan conocimiento a través del boletín de dichas actividades, envía un mensaje (junto con fotografías en formato JPG, BMP o GIF, documentos) a esta dirección: [amaia.intxaurreaga@ehu.es](mailto:amaia.intxaurreaga@ehu.es)

### ▶ FAKULTATEKO IKASLEAK ETA FAKULTATEKO BULETINA

Fakultateko ikasleek buletin hau erabili dezakete antolatutako ekitaldien edo jardueren berri emateko.

Beraz, fakultateko kideen artean halako berrinen bat zabaldu nahi baduzu, buletinean xertatu nahi duzun testuarekin (JPG, BMP edo GIF formatuko argazkiekin, dokumentuekin,...) batera, bidal ezazu mezu bat helbide honetara: [amaia.intxaurreaga@ehu.es](mailto:amaia.intxaurreaga@ehu.es)

### ▶ 11 ALUMNOS Y ALUMNAS DE PEDAGOGÍA ESTÁN PARTICIPANDO EN EL MÓDULO DE APRENDIZAJE EN SENTIDO DE LA IN

Once alumnos y alumnas de 4º de Pedagogía están participando en el Módulo auto-gestionado, multidisciplinar y colaborativo de Aprendizaje en Sentido de la Iniciativa. El módulo tiene 8 sesiones de tres horas cada una y está reconocido curricularmente por 2 ECTS de la asignatura de Mejora Continua y Emprendizaje.

Los 42 participantes de siete disciplinas diferentes del Campus de Guipúzcoa tendrán que responder a los retos planteados por los siguientes agentes sociales: **Helduak Adii!, Erroak, Teknalia, Goiener y La Casa de las Mujeres**. Para ello, deberán diseñar y aplicar cinco proyectos auto-gestionados.

### ▶ PEDAGOGIARIO 11 IKASLEK IKD GAZTEK ANTOLATURIKO EKIMEN SENA BULTZATZEN DUEN IKASKUNTZA MODULUAN PARTE

Pedagogiario 4. mailako hamaika ikasle IKD GAZTEK diseinatutako Ekimen Sena bultzatzen duen ikaskuntza modulu auto-kudeatu, multidiziplinar eta kolaboratzailean parte-hartzen ari dira.

Modulua hiru orduko 8 saioz osatuta dago eta Etengabeko Hobekuntza ikasgaiko 2 ECTSren aitortza dauka.

Parte-hartzen ari diren Gipuzkoako Kanpuseko zazpi diziplina ezberdineko 42 ikasle **Helduak Adii!, Erroak, Teknalia, Goiener eta Emakumeen Etxea** eragile sozialek proposatutako erronkei erantzun beharko diote, beraiek auto-kudeatu, diseinatu eta aplikatuko duten bost proiekturen bitartez.



### ▶ SERVICIO DE PSICOLOGÍA APLICADA

Estimados/as alumnos/as:

El Servicio de Psicología Aplicada, funciona desde este mes en los tres Campus de la UPV/EHU.

**Su función es atender al alumnado** que lo demande, orientando, apoyando y aconsejando frente a diversas dificultades psicológicas, **ofreciendo hasta un máximo de 8-10 sesiones gratuitas y consejo especializado** para la mejor derivación posterior, si hiciera falta.

¿Cómo contactar? Hay que escribir un e-mail a: [spa@ehu.es](mailto:spa@ehu.es), solicitando una cita y explicando la situación.

En un plazo de 24/48 horas se responderá a todas las consultas.

Más información o 943-018375

### ▶ PSIKOLOGIA APLIKATUKO ZERBITZUA

Ikasleak:

Psikologia Aplikatuko Zerbitzuak, hil honetatik aurrera, UPV/EHUko hiru campusetan eskaintzen ditu zerbitzuak.

**Zerbitzuaren funtzioa da laguntza ematea hala eskatzen duten unibertsitateko ikasleei.** Laguntza horren bidez gehienez ere 8-10 saio eskaintzen dira doan, eta horietan, ikasleari informazioa, orientazioa, babesa eta aholkularitza ematen zaio, eta, premiarik egonez gero, beste profesional batengana joatea aholkatuko zaio.

Nola jarri harremanetan zerbitzuarekin? Mezua bidali behar da [spa@ehu.es](mailto:spa@ehu.es) helbidera, egoera azaldu eta hitzordua eskatzeko. 24/48 orduko epean erantzuna bidaltzen dugu.

Informazio gehiago edo 943-018375

### ▶ EN RELACIÓN AL EMPLEO DE LOS FUTUROS PROFESIONALES

El pasado 13 de marzo, se presentó en el Aula Magna de la Facultad, información de interés en relación al empleo de los futuros profesionales.

En este sentido se dieron a conocer diversos servicios e información concreta que se pueden localizar en la **web de la universidad (empleo y prácticas)** en la red **Eures** y en el programa **Emprenari (Creación de Empresas Innovadoras)**.

### ▶ ETORKIZUNEN PROFESIONALEN ENPLEGUAREN INGURUAN

Martxoaren 13an, Fakultateko Areto Nagusian etorkizuneko profesionalen enpleguaren inguruan informazio interesgarria aurkeztu zen.

Gaiaren haritik, zerbitzu eta informazio zehatza, gune ezberdinetan topa daitekeena, plazaratu zen: **unibertsitateko webean (enplegua eta praktikak), Eures** sarean eta **Emprenari** programan (**Enpresa Berritzaileak sortzeko**).

### ▶ PRESENTACION PRACTICUM PEDAGOGÍA. AVISO CAMBIO DE FECHA

Debido a la huelga del 27 de marzo, la presentación del Practicum de Pedagogía se aplaza hasta el día 3 de abril. La presentación tendrá lugar en el Aula Magna de la Facultad, manteniéndose el horario:

- PRACTICUM I: 09:00-10:00 (grupo de euskera); 10:00-11:00 (grupo de castellano)
- PRACTICUM II: 11:00-12:00 (grupo de euskera); 12:00-13:00 (grupo de castellano)

### ▶ PEDAGOGIARIO PRACTICUM AURKEZPENA. DATA ALDAKETAREN OHARRA

Martxoaren 27ko greba eguna dela eta, Pedagogiario Practicum aurkezpena bertan behera gelditzen da. Apirilaren 3an egingo da Fakultateko Areto Nagusian, ordutegia mantenduz:

- PRACTICUM I: 09:00-10:00 (euskera taldea); 10:00-11:00 (gaztelania taldea)
- PRACTICUM II: 11:00-12:00 (euskera taldea); 12:00-13:00 (gaztelania taldea)

